

# MALETA IBILTARIA

## NORK HARTZEN DU PARTE?

ESKOLAKO IKASLE GUZTIEK HARTZEN DUTE PARTE. GELA BAKOITZAK LIBURUZ BETETAKO MALETA DUELARIK.



## ZEIN DA MALETA IBILTARIAREN HELBURUA?

MALETA IBILTARIAREN HELBURUA IRAKURZALETASUNA SUSTATZEA DA, IRAKURRIZ GOZATZEA ETA IPUINEN MUNDUAN MURGILTZEA, BETIERE FAMILIAREN PARTE HARTZEA BULTZATUZ.



## NOLA FUNTZIONATZEN DU?

MALETAK ASTEBETEKO EGONALDIA EGITEN DU FAMILIA BAKOITZAREN ETXEAN, HORRELA HAURRAK BERE FAMILIAREKIN KONPARTITZEN DITU LIBURUAK.

ASTEBETE IGAROTAKOAN, MALETA GELARA BUELTATZEN DA ETA BESTE IKASLE BATEK HARTZEKO AUKERA IZANEN DU.



## LIBURUAK IKUSI ONDOREN, ZER?

HAURRAK FAMILIAREKIN KONPARTITU DITUEN MOMENTUAK KONTATZEKO AUKERA DU ETA BAITA MALETAN DAGOEN KOADERNOAN IDATZI EDO MARRAZTU BIZI IZAN DITUEN BIZIPEN, ESPERIENTZIA EDOTA IRADOKIZUNAK AZALTZEKO AUKERA ERE.



## ZERGATIK LIBURU HAUEK ETA EZ BESTE HAIK?

MALETA BAKOITZEAN ADINAREN ARABERA EGOKITUTAKO LIBURU GOMENDARRIAK AURKITUKO DITUZUE. EUSKARAZ ZEIN GAZTELERAZ.

IKASTURTEAN ZEHAR LIBURU HAUEK ALDATZEN JOANEN DIRA, FAMILIA GUZTITATIK PASA AHALA.

